



NOTICIAS E INFORMACIONES DE INTERÉS ALBISTE ETA INFORMAZIO INTEREGARRIAK



Noticias e informaciones de interés 7-junio-2025

1.- Campaña de la mayoría sindical vasca en apoyo a la ILP por un salario mínimo propio

A principios de mayo los sindicatos que componen la mayoría sindical iniciaron la recogida de firmas en apoyo a la ILP para que sea reconocido el derecho a disponer de un salario mínimo propio en la Comunidad Autónoma Vasca. A finales de agosto vencerá el plazo de cuatro meses para culminar la recogida de firmas.

Al igual que ha sucedido con la elevada cantidad de firmas recogidas (145.142) por el MPEH en apoyo a la ILP para que las pensiones mínimas en la CAV sean complementadas hasta el Salario Mínimo Interprofesional, el conseguir un amplio número de firmas, por encima de las 10.000 establecidas legalmente para el paso a trámite de la ILP, concede una legitimidad mayor a lo reivindicado.

Para el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria (MPEH) conseguir un salario mínimo y una pensión mínima digna, adecuados a las condiciones socioeconómicas de nuestro país es muy importante, porque un amplio sector de trabajadores/as y pensionistas, en especial mujeres, sufren una situación de vulnerabilidad económica muy acentuada y necesitan disponer de unos recursos económicos básicos para poder vivir con un mínimo de dignidad.

Por ese motivo vemos con interés y apoyamos el que esa ILP por un salario mínimo propio y superior al establecido a escala estatal salga adelante. La recogida de firmas puede hacerse también telemáticamente, por medio del enlace: <https://lanbideartekosoldata.eus/eu/>

2.- Los obstáculos para acceder a la pensión mínima de jubilación: parcialidad de la contratación y economía sumergida (3)

La sentencia del Tribunal Constitucional español de 3/2019 declaraba la nulidad del sistema de cálculo de las pensiones de jubilación de las y los trabajadores con contrato a tiempo parcial, por vulnerar el principio de igualdad y suponer una discriminación contra las mujeres, que son quienes de forma muy mayoritaria trabajan a tiempo parcial –alrededor del 74% en los últimos años–.

La sentencia se basaba en que ese sistema suponía una penalización doble: a la menor base de cálculo por los menores salarios, no solo por la menor jornada sino también por el inferior salario horario que suele cobrar la gente con contrato parcial, se añadía un menor porcentaje a aplicar a la base de cálculo en función de la duración del tiempo cotizado, ya que el tiempo trabajado a tiempo parcial se calculaba en proporción de la jornada a tiempo parcial en relación con la jornada completa.

Para las pensiones que requieren períodos amplios, como las de jubilación e incapacidad permanente, se suavizaba la fórmula mediante la aplicación de un coeficiente multiplicador de 1,5 al número de días teóricos de cotización calculados en base al coeficiente de parcialidad, pero ello solo compensaba a quienes tuviesen una jornada del 67% del tiempo completo, lo que era muy minoritario.

Tras esa sentencia, una ley de 2023 fijó que desde el 1/10/2023 los periodos de actividad pasan a computarse como días completos a efectos tanto del acceso como de la cuantía de las pensiones, sea cual sea la jornada que se trabaje, eliminando así el coeficiente de parcialidad, si bien se mantiene que la base de cálculo será más reducida por el menor salario que se perciba. Pero esa modificación no se aplica retroactivamente, por lo que además de haber reducido la cuantía de las pensiones por los menores porcentajes aplicables, habrá impedido acceder a las pensiones de jubilación y de incapacidad permanente a un número muy considerable de mujeres.

Albiste eta informazio interesgarriak

2025eko ekainak

7

1.- Euskal gehiengo sindikalaren gutxieneko soldata propio baten aldeko kanpaina, HEL martxan da

Maiatzaren hasieran, gehiengo sindikala osatzen duten sindikatuek sinadurak biltzeari ekin zioten HELren alde, Euskal Autonomia Erkidegoan gutxieneko soldata propioa izateko eskubidea onar diezaguten. Abuztuaren amaieran amaituko da sinadura-bilketa hori amaitzeko lau hilabeteko epea.

EAEko gutxieneko pentsioak Lanbide arteko Gutxieneko Soldatara arte osatzeko HELren alde, berriki EHPMk bildutako sinadura kopuru handiarekin gertatu den bezala (145.142), sinadura kopuru handia lortzeak, HEL izapidetzeko lege ezarritako 10.000 sinaduretatik gora, zilegitasun handiagoa emango dio aldarrikapenari.

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduarentzat (EHPM) oso garrantzitsua da gutxieneko soldata eta gutxieneko pentsio duin bat lortzea, gure herrialdeko baldintza sozioekonomikoei egokitutakoa, langile eta pentsiodunen sektore zabal batek, bereziki emakumeek, sufritzen duten egoera ekonomiko oso ahula da, eta oinarritzko baliabide ekonomikoak behar dituzte gutxieneko duintasunez bizi ahal izateko.

Hori dela eta, interes handiz ikusten dugu eta babesten dugu estatu mailan ezarritako gutxieneko soldata baino haundiagoa izatea hemen eta HEL hori aurrera ateratzea. Sinadurak telematikoki ere bil daitezke, esteka honen bidez:
<https://lanbideartekosoldata.eus/eu/>

2.- Erretiroko gutxieneko pentsioa eskuratzeko oztopoak: kontratazioaren partzialtasuna eta ezkutuko ekonomia (3)

Espainiako Konstituzio Auzitegiaren 3/2019 Epaiak lanaldi partzialeko kontratua duten langileen erretiro-pentsioak kalkulatzeko sistema baliogabetu zuen, berdintasun-printzipioa urratzen zuelako eta emakumeen aurkako diskriminazioa eragiten zuelako, emakumeak baitira lanaldi partzian lan egiten dutenak — %74 inguru azken urteetan —.

Epaiaren oinarria zen sistema horrek zigor bikoitza zekarrela: soldata txikienengatiko kalkulu-oinarri txikienari, ez bakarrik lanaldi txikiagoarengatik, baizik eta kontratu partziala duen jendeak jaso ohi duen ordu-soldata txikiagoarengatik ere, ehuneko txikiagoa gehitzen zitzaion kalkulu-oinarriari, kotizatutako denboraren iraupenaren arabera; izan ere, lanaldi partzialean lan egindako denbora lanaldi osoarekiko proportzioan kalkulatzen zen.

Aldi zabalak behar dituzten pentsioetarako, hala nola erretirorako eta ezintasun iraunkorrerako pentsioetarako, formula leundu egiten zen, partzialtasun-koefizientearen arabera kalkulaturako kotizazio-egun teorikoen kopuruari 1,5eko koefiziente biderkatzailea aplikatuz, baina horrek lanaldi osoaren %67ko lanaldia zutenei baino ez zien konpentsatzen, eta hori oso minoritarioa zen.

Epai horren ondoren, 2023ko lege batek ezarri zuen 2023ko urriaren 1etik aurrera jarduera-aldiak egun oso gisa zenbatuko direla, bai pentsioak eskuratzeko orduan, bai pentsioen zenbatekoan, lan egiten den lanaldia edozein dela ere; horrela, partzialtasun-koefizientea kenduko da, baina kalkulu-oinarria txikiagoa izango da, jasotzen den soldata txikiagoa delako. Baina aldaketa hori ez da atzeraeraginez aplikatuko, eta, beraz, pentsioen zenbatekoa aplikatzekoak diren ehuneko txikienengatik murrizteaz gain, erretiroko eta ezintasun iraunkorreko pentsioak jasotzea eragotziko die emakume kopuru handi bati.